

OLENTZEROREN BILA

PERTSONAIAK

. Kontalaria	. Txanogorritxu	. Txerria 1	. Herensugea
. Arkaitz	. Otsoa 1	. Txerria 2	. Olentzero
. Maider	. Otsoa 2	. Txerria 3	

Kontalaria: Baziren behin Maider eta Arkaitz izeneko neska mutiko bi. Gau hartan oso pozik zeuden. Badakizue zergatik? Gabon gaua zelako eta Olentzero etorriko zelako opari pilo batekin.

Arkaitz: Nik patinak eskatu dizkiot Olentzerori. Ikusiko duzu zein ongi ibiliko naizen.

Maider: Ba nik ipuin batzuk eskatu dizkiot Olentzerori. A ze poza bihar goizean hemen ikusten ditudanean.

Arkaitz: Hau urduritasuna, ez dakit gaur lokartuko naizen.

Maider: Ni ere oso urduri nago, baina goazen orain lo egitera, bestela Olentzerok ez digu ezertxo ere ekarriko.

Kontalaria: Goiza heldu zenean...

Maider: Arkaitz esnatu! Goiza da. Ikus ditzagun gure opariak.

Arkaitz: Bai, goazen azkar.

Maider: (Begira eta begira dabilta) Hemen ez dago nire oparia. *(negarrez hasten da)*.

Arkaitz: Ezta nirea ere. *(negarrez hasten da)*.

Maidier: *(Lurrean dagoen egunkari bat hartu eta irakurtzen hasten da)* Eh, entzun hemen jartzen duena: atzo gauean, Olentzero ipuinen basoan zegoela, herensugeak preso hartu zuen. Beraz gabon hauetan ez da oparirik egongo Olentzero askatu arte.

Arkaitz: eta gu joango bagina Olentzero askatzera?

Maidier: Ideia bikaina! Biok joango gara.

Kontalaria: Arkaitz eta Maidier Ipuinen basora joan ziren, eta Olentzeron bila hasi ziren. Bidean, Txanogorritxu eta Otsoarekin topo egin zuten.

Arkaitz: Begira, Txanogorritxo da.

Maidier: Bai, eta bestea otsoa amonaz mozorrotuta.

Txanogorritxu: Amonatxo, amonatxo, nolako begi handiak dituzun

Otsoa: Zu hobeto ikusteko.

Txanogorritxu: Amonatxo, amonatxo, nolako belarri handiak dituzun.

Otsoa: Zu hobeto entzuteko.

Txanogorritxu: Amonatxo, Amonatxo, nolako hortz luzeak dituzun.

Otsoa: Zu hobeto jateko aaaahhhh

Arkaitz: Barkatu molestatzegatik, baina ba al dakizue non dagoen Olentzero?

Txanogorritxu: Ez, eta gainera atzo ez zidan oparirik ekarri.

Otsoa: Ezta niri ere.

Maidier: Egunkariak ipuinen basoan preso dagoela dio. Lagunduko diguzue bilatzen?

Txanogorritxu: Bai, bai.

Otsoa: Bai, bai.

Kontalaria: Ipuinen basoan guztiek Olentzeroren bila jarraitu zuten. Bidean hiru txerrikumeak eta beste otsoarekin topo egin zuten.

Arkaitz: Begira, hiru txerrikumeak.

Maidar: Bai, eta beste otso bat.

Otsoa 2: Ireki atea edo bestela etxea botako dut.

Txerria 1: Ez eta ez. Ez dut irekiko

(Otsoa putz egiten hasten da eta etxea botatzen du)

Txerria 1: Ahhhh, anai ertainaren etxera ihes egingo dut.

Otsoa 2: Ireki atea, edo bestela etxea botako dut.

Txerria 2: Ez eta ez. Ez dut irekiko.

(Otsoa putz egiten hasten da eta etxea botatzen du)

Txerria 1 eta 2: Ahhhhhhhh, anai nagusiaren etxera ihes egingo dugu.

Otsoa 2: Ireki atea, edo bestela etxea botako dut.

Txerria 3: Ez eta ez. Ez dut irekiko.

Otsoa 2: *(putz egiten hasten da)* Grrrr! Ezin dut etxea bota.

Arkaitz: Barkatu molestatzegatik, baina ba al dakizue non dagoen Olentzero?

Otsoa 2: Ez, eta gainera atzo gauean ez zidan oparirik ekarri.

Txerria:
1 eta 2 Ezta guri ere.

Txerria 3: Nik badakit non dagoen. Herensugeak bere kobazuloan preso dauka.

Maider: Eramango gaituzu Kobazulora ?

Txerria 3: Bai. Jarraitu nazazue.

Kontalaria: Txerriak bidea erakutsi zien, eta guztiak kobazulora heldu ziren.

Herensugea: Grrrr Alde hemendik!

Maider: Herensuge jauna, zergatik daukazu Olentzero preso?

Herensugea: Olentzero lapur gaizto bat baino ez delako.

Olentzero: Ez, hori ez da egia.

Herensugea: Nola ez dela egia? Atzo gauean lotan nengoela zarata batek esnatu ninduen. Altxatu nintzenean gizon hau harrapatu nuen lapurretan.

Olentzero: Ez nenbilen lapurretan...

Herensugea: Nola ez zenbiltzala lapurretan? Bizkar gainean zaku bat zeneukan lapurtutako gauza guztiekin.

Olentzero: Baina zakuan ez neuzkan lapurtutako gauzak. Opariak neuzkan motel.

Herensugea: Opariak niretzat?

Olentzero: Zuretzat eta basoko pertsonai guztientzat.

Arkaitz eta Maider : Eta guretzat?

Olentzero: Patinak eta ipuinak. Eskatu zenutena ezta?

Arkaitz eta
Maider : iupiiiiiii.

Kontalaria: Gaizki ulertze hura konpondu ondoren, Olentzerok guztiei bere opariak eman zizkien, eta elkar agurtu ondoren poz pozik bakoitza bere etxera itzuli zen.

Egilea: Iñaki Aldai
Karmelo Ikastola